




# BIHURRIKERIAK

Doinua: Mixelengo zubia

Neurria: Lau puntuko txikia (ip) / Zortziko txikia (hg)



Nahia Etxeberri Lopepe

- 1** Egunero arauak ditugu **aditzen** ta entseatzen gira asperdura **hiltzen** ezin utzi orduan ideiak **isiltzen** bihurrikerietan nor ez da **ibiltzen?** (bis)
- 2** Zerbait sinestarazi gaixo **amamari** edo sagarrak hartu auzoko **jaunari** “Uhu” kola kaderan **erakasleari** mundu hontan badira aukera **ugari.** (bis)
- 3** Txiste on bat buruan lagunak **aldean** beti atxemaiten da faila bat **legean** irriz aritzen gira eginez **taldean** baina buruak apal zigorren **parean.** (bis)
- 4** Bihurrikeriak du semea **gaztigu** baina egun pizuak arintzen **dizkigu** kasu halere nehor ez da behar **mindu** denak elgarrekilan gira **bihurri gu!** (bis)

